

Gazteak HEGOaren Bila

7. LEHIAKETA - 2010

Talde-jokoa, irudimenez jolasteko eta bidaiaz gozatzeko

LAGUNTZAILEAK:

ANTOLATZAILEA:

2012 ZUREKIN BAGOAZ AURRERA



Bentetako Ingurubidea, 4, 1.a - 31600 Burlata
Tel. 948 131 574
navarra@medicusmundi.es

www.jovenesbuscadelsur.org

Lehiaketaren oinarriak

7. Lehiaketa Gazteak HEGOaren Bila

- Parte hartzeko 4 - 6 kideko taldeak osatuko dira. Partaideak 1984ko urtarilaren 1etik 1992ko otsailaren 23ra bitarte jaiotako gazteak izanen dira, bi data horiek barne, Nafarroan jaiotako edo gaur egun Foru Komunitatean lan egin, ikasi edo bizi direnak.
- Jokoak 5 proba izanen ditu, otsailaren 23tik aurrera eta bost astez iragarriko direnak, asteartero iragarri ere, bai www.jovenesbuscadelsur.org web orrialdean bai Diario de Navarra egunkariko "Navarra" sailean.
- Helburua da gazteek hegoaldeko herrialdeen egoera zertan den hobeki ezagutzea eta munduko bidegabekeriaren arrazoi eta ondorioei buruz hausnarketa sortzea, irudimena eta talde-lana sustatuz.

Sariak

- 1. saria:** 15 eguneko bidaia Peru barna, herrialdea eta **medicusmundi**ren zenbait proiektu bertatik bertara ezagutzeko.
- 2. saria:** 2.700 euroko poltsa, taldeak bidaia bat antolatu eta egin dezan, elkartasunarekin edolankidetzarekin loturiko esperientziaren bat ezagutzeko.

1. **medicusmundi nafarroak**, nazioarteko lankidetzarako erakunde solidarioak, "Gazteak HEGOaren Bila" lehiaketaren 7. edizioa antolatu du, gazteek munduko egoera zertan den hobeki jakin dezaten laguntzeko eta haien interesa pizteko. Gure ekimenean honakoak ditugu lagun: Nafarroako Gobernua, Iruñeko Udala, Hermanos Sarasibar Fundazioa eta Diario de Navarra egunkaria.

2. Saria: talde irabazlea Perura joanen da 15 egunetarako. Han bertatik bertara ezagutu ahal izango dute bai herrialde horretako egoera bai **medicusmundi nafarroaren** lankidetzaren lana. Bidaia 2010eko abuztuaren urrian edo azaroaren antolatuko da. Bidaia nor bere nazioarteko agiriaren kudeaketaz arduratuko dira.

3. Bigarren saria: 2.700 euroko poltsa emanen zaio bigarren taldeari, bidaia antolatu eta egiteko, elkartasunarekin edo/eta lankidetzarekin zerikusia duen esperientziaren bat ezagutzeko betiere.

4. Partaideak 1984ko urtarilaren 1etik 1992ko otsailaren 23ra bitarte jaiotako gazteak izanen dira, bi data horiek barne. Nafarroan jaiotako izan beharko dute edo gaur egun Foru Komunitatean lan egin, ikasi edo bizi. Aurreko edizioetan sariren bat lortu izan dutenek ezin dute berriro parte hartu lehiaketa honetan.

5. Jokoan taldeka parte hartu beharko da. Taldeak gutxienez ere 4 kidekoak izanen dira, eta 6 kidekoak, gehienez ere. Izen bat aukeratuko dute jokoan erabiltzeko.

6. Talde bakoitzak, lehenbiziko probaren erantzunarekin batera, gutun-azal itxi bat ekarri beharko du. Bertan taldearen izena idatziko dute, baita harremanetarako telefono zenbaki bat ere. Gutun-azalaren barrinean taldekide guztien nortasun agiriaren edo pasaportearen fotokopiak sartuko dira, baita behar bezala betetako inskripzio orria ere, www.jovenesbuscadelsur.org

web orrialdean edo **medicusmundi**ko bulegoetan eskura daitekeena. Taldekide kopurua goian aipatutakoa ez balitz edo taldekideetako batek ezarritako baldintzak beteko ez balitu, taldea jokatik baztertuko litzateke.

7. Jokoak bost proba izanen ditu. Aipatu web orrialdean eta Diario de Navarra egunkariko "Navarra" sailean argitaratuko dira, honako egunetan argitaratu ere: 2010eko otsailaren 23an eta martxoaren 2an, 9an, 16an eta 23an.

8. Proben erantzunak gaztelaniaz edo euskaraz eman ahalgo dira. Proba bakoitzaren planteamenduan adieraziko da nola, noiz eta zein tokitan aurkeztu beharko den erantzuna.

9. Sariak eskuratzeko aukera izateko, behar bezala aurkeztu beharko dira lehenbiziko lau proben erantzunak, eta, horretaz gain, taldeko bi kidek Iruñean eginen den proba-jarduera eta azken jaiaren parte hartu beharko dute, 2010eko martxoaren 27ko goizean, larunbatetarakin.

10. Edukiari, aurkezpenari eta originaltasunari begira balioetsiko dira erantzunak.

11. Erakunde antolatzailearen eta erakunde laguntzaileen ordezkariak osatuko dute epaimahaia. Ezin izanen da epaia apelatu.

12. **medicusmundi** eskubidea izanen du aurkezten diren ideia edo sormen-lanak baliatu, erreproduzitu edo zabaltzeko, hau da, erakundearen helburuen mesederako erabiltzeko. Jatorrizko lanak 2010eko maiatzaren jaso ahalgo dira, **medicusmundi**ren bulegoetan egonen baitira parte hartzaileen eskura.

13. Lehiaketan parte hartzeak honako oinarri hauek onartzen direla esan nahi du. Antolatzaileek ahalmena izanen dute oinarriotan agertzen ez diren inguruabarrei buruz erabakitzeko.



www.latiiradeoroz.es



www.latiiradeoroz.es